



Beldur gabe haziz, etorkizuna aldatu

**Beldur gabe haziz,
etorkizuna aldatu**



Azaroak 25

emakumeenganako indarkeriaren
aurkako eguna!



Indarkeria sexistaren prebentzioa

STEE-EILAS





Beldur gabe haziz, etorkizuna aldatu

SARRERA

Edozein bortizkeria motari buruz hitz egiterakoan ezinbestekoa da hauek non ematen diren kontutan hartzea. Eguneroko esparruak eremu segurutzat ditugu, eta horrela izaten da gehienetan. Zoritxarrez, ez da berdin gertatzen aisiarako eremuekin, non maiz segurtasun eza eta beldurrak sortzen dituzten egoerak ematen diren. Noski, batez ere, emakumezkoentzat. Horregatik, hain zuzen ere, oraingo honetan ikastetxeetara eraman nahi dugu bortizkeriarik gabeko esparruen inguruko lanketa, non ikasleak, neskek zehazki, lasai senti daitezkeen, erasoaren beldurrik izan gabe.

Gure gizarteak, modu sotilean, aurreiritzi sexistez betea darrai, eta honek bere isla du pentsamenduan. Ondorioz, gure gizartearen gehiengoak oraindik honelakoak sinesten ditu: zenbait gauza gizonezkoei dagozkiela eta beste batzuk aldiz neskei, bortizkeria matxista norbanakoaren arazo bat dela, hobe dela eremu eta ordu arriskutsuak saihestea, etab.

Hiritartasunaren eraikuntzan eta gizareratze prozesuetan hezkuntzak duen garrantzia kontutan izanik, egun hauetan gaia zuen ikasleekin lantzeko proposamena luzatu nahi dizuegu. Alde batetik, emakumeak bakarrik zein taldean defendatzeko gaitasuna dugula nabarmenduz, baita bortizkeria matxistari aurre egiteko ere. Horretarako lehen urratsa ezetz esatea da, baina aldeaz aurretik ezinbestekoa da ulertzea **EZETZ** esateko eskubidea dugula.

Bestalde, ezinbestekoa da ulertzea emakumeen kontrako bortizkeriarekin amaitu nahi badugu balio aldaketa eman behar dela. Emakumeenganako mespretxua eta bazterketa dakarten adierazpen eta jokabideak zokoratzen dituzten komunikazio ereduak eraldatu behar dira, eta begirune eta askatasunean oinarrituriko harreman ereduak sortu; gure printze urdinaren, edo are okerrago, gure beltzezko epailearen zain egoteko hezten ez gaituztenak.

Beldurra babes mekanismo bat den arren, esparru eta ordu seguruak bermatzea guztiontzat gizartearen egin beharra da. Beldurra ezin da gure ikasleriaren haurtzaro eta nerabetasunaren parte izan, bilaka dezagun gure ingurunea segurtasun eta berdintasun esparrua. Nazkatuta gaude instituzioetatik emakumeok erasoak saihesteko zer egin behar dugun entzuteaz, esan diezaieten beraiei, gizonezkoei, erasotzaile izan daitezkeen horiei. Baina beti bezala bortizkeria matxistaren “biktima” garenok erruduntzat hartzen gaituzte.

Gu guztiok lan ikaragarria egin dezakegu ildo honetatik, eta horretarako “beldur gabe hazi, etorkizuna aldatuz” unitate didaktikoa eskaintzen dizuegu. Sistema heteropatriarkal kapitalista honek botere eta mendetasun harremanak mantentzeko sortutako bortizkeria matxistak dituen milaka aurpegiak agerian utz ditzakegu ikastetxeetan. Beldurrik gabe, etorkizuna alda dezakegu, bortizkeriarik gabeko eskolak, bortizkeriarik gabeko gizartea lortzeko lehen urratsa direlako.



Beldur gabe haziz, etorkizuna aldatu

ABIAPUNTUA

Unitate honen abiapuntua STEE-EILASen kartela izan daiteke, aldez aurretik ikasleek ekarritako aisialdietako espazioaren batean gertatutako emakumeen kontrako bortizkeriari buruzko berriren bat edo bibliografian proposatutako materialaren bat.

HELBURU OROKORRA

Indarkeri mota desberdinei buruz orokorrean eta bereziki aisialdietako espazioetan ematen direnei buruz gogoeta egitea, hauen jatorri eta ondorioak aztertuz, diskriminazio sexistaz jabetzeko eta errotik kentzen laguntzeko.

HELBURU DIDAKTIKOAK

- Aisialdiko espazio desberdinetan sortzen diren emakumeen kontrako indarkeri mota desberdinak identifikatzea eta ezagutzea hauen kontra jotzeko kapaza izateko.
- Gertuko espazioetan ematen diren emakumeen kontrako indarkeri eta joera sexistak detektatzea, espazio eta ordutegi guztietan eman daitezkeela ohartuz babesteko gaitasunak garatzeko.
- Indarkeria sexista minimizatu egiten duten mitoaz kontzientzia hartzea, haien ondorioetan indarra jarriz emakumeekiko gizonen balizko nagusitasunarekin bukatzeko.
- Normaltzat hartzen diren baina emakumeen kontrako agresio ezkututzen duten ohiturak, sinesmen eta praktiken aurrean espiritu kritikoa garatzea, haien ondorioaz jabetzeko eta kontra borrokatzeko.
- Zein jendarte eredia nahi dugun hausnartzea, hura aztertuz, jendartearen pertsona guztien ongizatea bilatzeko.
- Ikasleen auto-estimua era aktiboan sustatzea, beraien garapen psikosoziala indartuz, erabakiak hartzeko gaitasuna izateko.
- Gaitasun sozialak lantzea (bai/ez esatea, argudiatzea, eskatzea, nahia adieraztea ...), horretarako behar diren egoerak eskainiz, askatasunez bizitzen ikasteko.
- Gatazken konponbidea modu positiboan lantzea, horretarako behar diren egoerak eskainiz, enpatia garatzeko.

GINARRIZKO GAITASUNAK

- Gizarterako eta hiritartasunerako
- Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna.
- Hizkuntza komunikaziorako gaitasuna.
- Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna.

EDUKIAK.

- Indarkeri egoerak: bortxaketa, eraso sexuala, jazarpena ...
- Emakumearen egoerari buruzko sentsibilizazioa: desberdintasunaren kontzientzia
- Inguruaren ezagutza: hiriko, herriko, auzoko puntu beltzak ...
- Komunikabideen ikerketa, telebistako serieak, publizitatea.
- Emozioen identifikazioa
- Auto-estimua hobetzeko mekanismoak
- Gaitasun sozialak.
- Elkar lanerako eta lankidetzarako jarrera.
- Adostasunetara iristeko prozeduren garapena.
- Irizpide kritikoz jokatzeko ahalmena.
- Berdintasunezko harremanak ezartzea.
- Informazioa bilatzeko, sailkatzeko, aztertzeko eta adierazteko trebeziaren garapena.



Beldur gabe haziz, etorkizuna aldatu

JARDUERAK

1. GAIAREN AURKEZPENA ETA MOTIBAZIOA

Ondorengo jarduerak ikasleriaren adina zein gaiarekiko duten motibazioari egokitu beharko dira. Horretarako baliabide desberdinak erabil daitezke: kartela, ipuinak, argazkiak ...

Materialak: STEE-EILASeko kartela, arbela

Denbora: Bi edo hiru saio

Taldekatzea: Talde handia, talde txikiak, banaka.

1. Saioa: Idei zaparrada

Deskribapena:

1. Gaia aurkezteko irakasleak STEE-EILASen kartela toki ikusgai baten jarriko du.
2. Pentsatzeko denbora eman gabe, galdetuko du: Zerk deitzen dizu atentzia kartela begiratzuz?
3. Idazkari bat izendatuko da eta ideia nagusiak jasoko dira. Erronda bat egingo da denen partaidetza bultzatuz.
4. Bitartean irakasleak arbela bi zutabetan banatuko du (+ eta -).
5. Ideiak zutabe batean edo bestean jarriko ditu islatzen dituzten komentarioak, jarrera zein sentimenduak positibo edo negatiboak diren kontutan hartuta.
6. Debatea eta parte-hartzea bultzatuko da:
 - Zer da zehazki kartelak islatzen duena? Erdian dagoen neskatxa, nerabea eta gaztea, inguruan begirada eta espresioak, sortzen dituen sentimenduak ...
 - Nola uste duzue sentitu edo sentitzen dela neska, nerabe eta gaztea? Zergatik?
 - Modu horretan sentitu al zarete noizbait? Taldearekin konpartitzerik al duzue? (eskolan, institutuan, kalean, jaietan, senide edo lagun baten etxean ...) Nola erreakzionatu zenuten?
 - Horrelako egoera baten egon den lagunik edo ezagunik al duzu? Nola erreakzionatu zuen?
 - Dena hau bortizkeria dela uste al duzu?
7. Ondorioak aterako dira:
 - Erdiko irudia mutil batena izango balitz, kartela ikusteko modua edo interpretazioa aldatuko litzateke?
 - Zergatik uste al duzue honelako egoerak, sentsazio edo ekintzak islatu nahi direla?
 - Zure ustetan zergatik egiten dira horrelako ekintzak?
 - Errebindikazio mota hauek beharrezkoak al dira?
 - Orain ateratako ondorioak eta saioaren hasierako errondan ateratako ideiak bat al datoz?

Kartelak interpretazio desberdinak izan ditzake. Alde batetik, erdian agertzen den neskatxa/gazte baten bizitzako etapak islatu nahi du, jomugan egotea bezala interpretatu daitekeelarik. Jomugan egote hau, positiboa edo negatiboa izan daiteke balorazio eta errespetutik egiten bada edo beldurra eta mespretxutik sortuta bada. Beste aldetik, irudi zentralaren inguruan begirada eta espresio desberdinak islatzen dira, gehienak jazarpenekoak. Hauek protagonistarengan eragina izaten nahi dute.



Beldur gabe haziz, etorkizuna aldatu

2. Saioa: Beldur gabe haziz, etorkizuna aldatu

Deskribapena:

1. Irakasleak kartela eta aurreko saioan ateratako ondorioak berreskuratuko ditu, oraingoan atentzioa karteleko leloan jartzeko eskatuko du: Beldur gabe haziz, etorkizuna aldatu.
2. Taldea talde txikitan banatuko du eta leloari buruzko hausnarketa txiki bat idazteko eskatuko du.
3. Ondoren talde bakoitzari, ikasleei beldurra ematen dien egoera, espazio edo gauzen zerrenda osatzeko eskatuko dio. Zergatia aipatu eta handien txikiena ordenatzeko.
4. Komunean jarri eta kategoria desberdinetan sailkatuko dira: Kanpoko gauzaz sortutakoak (iluntasuna, altuerak ...), norberarengandik datozenak (ridikuluari, bakardadeari ...), espazio konkretuek sortutakoak (kaletik bakarrik ibiltzea, autostopa egitea ...), beste batzuk ...
5. Behin sailkatuta arreta jarriko da indarkeria edo eraso dezaketen pertsonen edo egoeratan.
6. Ondorioak aterako dira:
 - Berdinak al dira beldurraren iturri guztiak?
 - Neskek eta mutilek beldur berdinak al dute? Zergatik?
 - Gure beldurretan indarkeria egoerak agertzen al dira? Zer indarkeri motak?
 - Indarkeria hauek guztiak intentsitate berdina al dute? Ba al dute zerbait komunean? Zer bilatzen dute?
 - Zer da atentzioa gehien deitu dizuna? Zergatik?
 - Egoera guzti hauen aurrean zer egin dezakegu?
 - Ba al daude bereziki emakumeen kontrako indarkeriarik?
 - Gure inguruan emakumeen kontrako indarkeria existitzen al da? Nola azaltzen da?
7. Bukatzeko kartelaren leloa berreskuratuko da: "Beldur gabe haziz, etorkizuna aldatu"
 - Beldurrik gabe haztea garrantzitsua al da? Zergatik?
 - Zer behar da beldurrik gabe hazteko?
 - Leloa gaur ospatzen den egunerako egokia dela uste al duzue?

Hirugarren saioa: Errealitatea ikertzen

Garapena:

1. Taldea talde txikitan banatuko da berriz.
2. Talde bakoitzak espazio desberdinetan emakumeek jasaten dituzte indarkeria mota desberdinak sakonki ikertuko du: etxean, eskolan edo institutuan, ekipoa, lantokian, aisialdian (tabernetan, jaietan ...)
3. Talde bakoitzak bere ondorioak irudikatuko ditu:
 - a. Horma-irudiekin
 - b. Ipuinekin
 - c. Komikiekin
 - d. Antzerkia eginez
 - e. ...



Beldur gabe haziz, etorkizuna aldatu

HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZA

Materialia: Betiko ipuinak, arbela, horma-irudiak egiteko papera, folioak eta margoak

Denbora: Bi saio

Taldekatzea: Talde handia, talde txikia, banaka.

Lehenengo Saioa: Beldurra sentitzen duten pertsonaiak

Deskripzioa:

1. Irakasleak bibliotekara eramango du taldea eta bertan beldurra sentitzen duten ipuinetako pertsonaiak topatzeko eskatuko du.
2. Ondoren arbela hiru zutabetan banatuko ditu. Topatu dituzten pertsonaiak lehenengo zutabeen jarriko dituzte, bigarrenen beldurraren jatorria jarriko dute eta hirugarrenean adieraziko dute beldur hori erreal edo fikziozkoa den.
3. Behin eskema argi izanda irakasleak hausnarketa bultzatuko du ondorengo galderak erabiliz:
 - Beldurra duten pertsonaiak neskak edo mutilak al dira?
 - Pertsonaiak dira beldurra dutenak edo kanpotik beldurra sartzen al diete?
 - Generoz aldatuta protagonistak beldurra izaten jarraituko luke?
 - Beldurra izatea normala al da? Ona al da?
 - Beldurrak zer sentazio sortzen al du? Nola sentiarazten zaitu; handi/txiki, gogorra/ ahula, aske/preso, aktibo/pasibo ... ?
4. Irakasleak taldea talde txikitan banatuko du. Talde bakoitzak ipuin bat aukeratuko du eta protagonistak beldurra ez izateko edo beldurrari aurre egiteko konponbide bat bilatu beharko du.
5. Bukatzeko talde bakoitzak klase-kideen aurrean ipuin berria antzeztuko du.

Bigarren Saioa: Nire beldurrei aurre eginez

Deskripzioa:

1. Irakasleak STEE-EILAS kartelarekin egindako jarduera gogoratuko du baita beldurraren kategoria desberdinak ere: kanpoko gauzak sortutakoak (iluntasuna, altuerak ...), norberarengandik datozenak (ridikuluari, bakardadeari ...), espazio konkretuek sortutakoak (kaletik bakarrik ibiltzea, autostopa egitea ...)
2. Indibidualki ikasle bakoitzak beldurra, lotsa edo deseroso sentitu/izan duen egoera bat marrazteko eskatuko du.
3. Talde txikitan egoera bat aukeratu eta gelan antzeztuko dute.
4. Antzerkiaren ondoren ikasleei eskatuko zaie egoera aldatzeko eta beldurrik gabe bizitzeko zer egin beharko litzatekeen proposatzeko. Debatea bultzatuko du.



Beldur gabe haziz, etorkizuna aldatu

BIGARREN HEZKUNTZA

2. GURE ERREALITEA

Materialak: Arbela, Internet duen ordenagailua, folioak, Eranskin I.

Denbora: Bi Saio.

Taldekatzea: Talde handia, talde txikiak, banaka.

Lehenengo saioa: Gure Herria

Deskripzioa:

1. Irakasleak aurreko saioan ateratako ondorioak berreskuratuko ditu non espazioak eta bakoitzean ematen diren indarkeria motak landu ziren.
2. Indarra herrian edo auzoan zentratuko da. Talderen batek ondorioak atera bazituen berreskuratuko dira ere bai.
3. Herriko mapa bat lortuko da eta toki ikusgarri baten jarriko da.
4. Taldeko partaideak bana banan arriskutsuak iruditzen zaizkien herriko puntuak markatuko ditu mapan. *Herri askotan la hau berdintasun teknikariek edo emakumeen taldeek egin dute.*
5. Ikasleei konponbideak proposatzeko eskatuko zaie. Eta sailkatuko dira:
 - Hiri-altxariei lotuta: iluminazioa, kalejoiak, pasadizoak ...
 - Espazioa horiek erabiltzen dituzten pertsoneri lotuta: ez erabiltzea, autodefentsa ...
 - Kanpoko segurtasunari lotuta: polizia, ...
 - ...
1. Ondorioak aterako dira
 - Nortzuk sentitzen dira ahulago espazio horiek erabiltzen dituztenean?
 - Uste al duzuen, herrian edo auzoan espazio horiek erabiltzeko beldurra dagoela?
 - Gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunik al dago?
2. Bukatzeko ikasleei herrirako ekintza edo kanpainak proposatzeko eskatuko zaie:
 - Udaletxeari idazkia
 - Salatzeko edo abisatzeko kartelak
 - Performanceak
 -



Beldur gabe haziz, etorkizuna aldatu

Bigarren Saioa: Gu eta gure zirkunstantziak

Deskripzioa:

Emakume batek, emakume izateagatik soilik, indarkeria matxista pariatzen duenean gehienetan errepikatzen den ondorioetako bat errudun sentitzea da. Sentimendu hau normalean gizartearen presioak eta erantzunak sortua izaten da. Aurre egin ahal izateko honetaz jabetzea ezinbestekoa da.

1. Irakasleak proposatuko du ikasleek banan banan erasotuta, beldurtuta, lotsatuta edo deseroso sentiarazi dien benetako egoera bat idazteko edo kontatzeko (beraiena edo beste norbaitena izan daiteke).
2. Aztertuko da ea egoera horien biktimak errudun sentitu diren edo sentitu daitezkeen.
3. Egoera horietan, Biktimen aldetik erantzunik egon al da?, gizartearen aldetik erantzunik egon al da?, Zein izan beharko litzateke erantzuna?
4. Bukatzeko, Eranskin lko materialak erakutsiko dira. Bertan indarkeria edo botere matxistaren egoerak agertzen dira, ikasleei beste batzuk sortzeko eta institutuko toki ikusgarrietan jartzeko eskatuko zaie. Institutua erasorik gabeko espazioa bihurtuz.



Beldur gabe haziz, etorkizuna aldatu

EBALUAKETA

Kartelarekin egingo den lehenengo jarduera ikasleek indarkeriaz dituzten ezagupenak edota sentzibilitatea ebaluatzeko erabiliko da. Horrek erraztuko du zehaztea zein diren bereziki landu behar diren alderdiak.

Unitatea lantzen den bitartean etengabe ebaluatu egingo da ikasleen parte hartzea eztabaidetan, informazioaren bilaketan eta materialen elaborazioa sistematikoki behatuko da.

Unitatea bukatzean, berriz, ikasleen banakako eta taldeko lana baloratuko da markatutako irizpideen arabera.

Bestalde, jarduera bakoitzaren bukaeran jardueraren beraren ebaluazioa egingo da, zerk funtzionatu duen, zerk ez, nola antolatu den gela, denbora, ikasleen motibazioa, taldekatzea... Hau guztia unitatearen prozesua eta garapena egokitzeko erabiliko da.

Ebaluatzeko irizpideak

- Ea kontzientea den munduan emakumeen kontrako indarkeria dagoela
- Ea kontzientea den harremanetan indarkeria dagoela.
- Ea eguneroko egoerak behatzen eta aztertzen dituen genero osagaia kontuan hartuz.
- Ea ohartzen den harremanetan dauden estereotipoak.
- Ea kontzientea den emakumeengan edo estereotipoa betetzen ez duten gizonengan “tratu txar sotila” dagoela.
- Ea harremanetan izan behar dituzten ezaugarriek bere lehentasunak adierazten dituzten.
- Ea kontzientea den harremanetan indarkeriak ekartzen dituen arriskuez.

Ebaluatzeko teknikak: Behaketa.

Ebaluatzeko tresnak:

- Irakaslearen eguneroko jarraipena.
- Ikasle bakoitzaren istorioa. Bertan bilduko dira beraien lanaren balorazioa, lan esanguratsuen bilduma eta unitatea garatzean egindako ahozko ekarpenak.
- Egindako lanak.

Ikasleen ebaluazioa: Elkarrizketarako gidioa:

- Zer den gehien eta gutxien gustatu zaiena.
- Zer den ikasi dutena edota zertaz jabetu diren.
- Zerk harritu dituen gehien.
- Zer aldatuko zuten prozesuan.



Beldur gabe haziz, etorkizuna aldatu

BALIABIDEAK

Ipuinak

- Ipuinak geletan: ametsei ateak zabaltzen
- “Neskatxak” Erein
- “Marizipristinek ez du zorioneko galeperrik nahi”
- “Txanogorritxu eta atso beltzu” Kukuxumuxu
- Ipuinak ez sexistak izateko gida” Urtxintxa eskola

Laburmetriak (B.H.)

- “Nagore” Helena Taberna (en youtube)
- “Sin pensarlo dos veces” (en youtube)
- “Vive o muere” (en youtube)
- “Bajo la máscara” (en youtube)
- “Sinrazón” (en youtube)

Beste materiala

- “Hezkidetza da bidea” STEE-EILAS argitaratutako karpeta





Beldur gabe haziz, etorkizuna aldatu

ERANSKIN I



Create your own at StoryboardThat.com





Beldur gabe haziz, etorkizuna aldatu

ERANSKIN I



Indarkeria sexistaren prebentzioa